

GIL 74 Ozioko trabertinoak



Trabertinoen geruza osatzen duen plataforma horizontala.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 39' 11,39" N

Long.: 2° 49' 42,43" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 514.060,89 m

Y: 4.722.314,63 m



Nola iritsi

Miranda de Ebrotik 10 km-ra (E) eta Gasteiztik 40 km-ra (S) dago Ozio. Zanbrana herritik, zeina Gasteiz-Logroño (N-124) errepidean baitago, heltzen da azkarrena. Zanbranak 5 km-ra dago, Urizaharrera doan A-3126 errepidetik. Herrira iritsi baino kilometro bat lehenago, lautada horizontal bat zeharkatzen da, El Tobal izeneko lekuan bukatzen dena. Azalratze onena lautadaren hegoaldeko ebakian dago, eta mendi-bide batetik hel daiteke hara.



Formazioaren hegoaldeko ezponda.

Deskribapena


Ozioko trabertinoen unitateak atenzioa ematen du paisaian, zuri kolorea duelako eta goi-lautada bat erabat horizontala erutzen duelako. Metakina 15 metro lodi da, gutxi gorabehera, alderdirik lodienean, eta estratifikazioak mendebalderanzko malda txiki bat du.

Gaur egun travertinoek hartzen duten eremua, iturbururen batek elikatuko zuen garai batean, eta ur horretan disolbatutako kaltzio karbonatoaren prezipitazio kimikoaren eraginez eratu ziren trabertinoak. Trabertinoak eratzeko kondizio garrantzitsuenetako bat da alga (*Characeae*), goroldio (*Sphagnum*) edo landare-arrasto batzuk egotea, zeinak gai baitira prezipitazioa eragiteko eta karbonatoa finkatzeko. Hori oso nabarmen ageri da Ozioko trabertinoetan, nagusiki hodi-formako landareen eta landare kaltzifikatuen hondakinez eratuta baitaude. Halaber, barraskilo-maskor asko aurkitu daitezke, 1-2 cm-koak. Arroka bigunak direnez, haitzuloak egiteko erabili dira askotan.

Kuaternarioko material berriak dira, eta eremu handi bat eratzen dute 510 m-ko kotan, Inglares ibaiaren ibilguan zehar; modu diskordantean ezarrita daude Mesozoikoko eta Tertziarioko material guztien gainean.

Behatzeko punturik onena

Errepideak ebakitzen duen lekua edo goi-lautadaren hegoaldeko ezponda.



Landare-jatorriko eta hodi-formako elementu kaltzifikatuz osatutako lagin baten xehetasuna.

Lurzorua hodi txikiz eta adar kaltzifikatuz betea dago.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 10, GIL 51, GIL 129, GIL 122, GIL 128.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 75, GIL 47.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Trabertinoen metakinean zulatutako haitzulo bat.

Bibliografia espezifikoa

- Eguiluz, L. eta Llanos, H. (1986). *Itinerario geológico de la estructura de Ocio. IV simposio nacional sobre enseñanza de la geología*, Gasteiz, 423.-441. or.
- IGME (zenbait egile eta urte). *Mapa geológico nacional a escala 1:50.000 (MAGNA), 138. eta 170. or. (Argantzun eta Haro)*.
- IGME (1973). *Estudio geológico de la Provincia de Álava*. Mem. IGME, 83. zk.
- Ramírez del Pozo, J. (1971). *Bioestratigrafía y microfácies del Jurásico y Cretácico del Norte de España (Región Cantábrica)*. Mem. IGME, 78. zk.
- Ramírez del Pozo, J. (1973). *Síntesis geológica de la Provincia de Alava*. Edit.: EAE. Gasteiz.
- Eguiluz, L.; Llanos, H. eta Ramírez del Pozo (1986). *Excursiones geológicas en la Provincia de Alava. IV Simposio sobre enseñanza de la geología*. 4, 521-536.
- EVE, 170-I zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M. (2005). *La Tierra de los pilares. Sustrato y rocas de construcción monumental en Álava. Mapas litológicos de las iglesias de la Diócesis de Vitoria*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 147 or. eta CD bat. ISBN: 84-8373-655-1.